

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ASPARRENEKO UDALA

#### Jarduera ekonomikoen gaineko 2021eko zerga borondatezko epean ordaintzea

Jarduera ekonomikoen gaineko zerga ordaindu behar dutenei jakinarazten zaie, 2021eko urriaren 11tik abenduaren 11ra bitartean, egun biak barne eta egun baliodunetan, ordaindu ahal izango dituztela 2021eko ekitaldiko ordainagiriak, borondatezko epean.

Aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, baldin eta zerga aurreko urteetako bankuko kontu berean helbideratuta badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

Ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenek Udalaren Diruzaintzan (udal bulegoak, Herriko Enparantza 1, Araia) ordaindu ahal izango dute borondatezko epean, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara. Era berean, ordainketa dirutan egin daiteke, udalak Kutxabanken, Laboral Kutxan, La Caixan eta Caja Ruralen dituen kontuetakoren batean.

Premiamendu aldia 2021eko abenduaren 12tik aurrera hasiko da, administrazio premiamenduko betearazte bide administratiboa abiarazita eta dagokion errekgua aplikatuta (otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorra, Arabako zergena, 28. artikulua).

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Araia, 2021eko irailaren 16a

*Alkatea*

**CONSUELO AUZMENDI JIMENEZ**